



iv. Postposizioak

iv.1. Izen sintagma bizidunetako postposizio konplexuak: *-gan-* (v *-rengan-*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Izen sintagma bizidunetako postposizio konplexuak: *-gan-* (v *-rengan-*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=4&e=50&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

adlatiboa, biziduntasuna, genitiboa, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra. Euskaraz, izen sintagma bizidunetako adposizioen saila osatzeko, biziduntasuna adierazten duen *-ga-* morfemak beharrezkoa du inesiboa (*-n*) lexikalizatzea. Gainera, izen sintagma bizidunek *-ga-* morfemadun postposizio bat hartzen dutenean, genitiboa tartekatu ohi da izen sintagmaren eta *-ga-* morfemaren artean (*-(r)en-ga-n-*).

(1) Gizonarengana

joan

da

	gizon.ABS.SG.GEN.ga.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan
(2)	Gizonengana	joan	da
	gizon.ABS.PL.GEN.ga.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

*Hizkera eredu*a: Mendebaleko zenbait hizkeratan, izen sintagma biziduna singularra edo zehaztugabea denean, genitiborik gabe azal daiteke. Aldiz, izen sintagma biziduna plurala denean, genitiboa ezinbestekoa da.

(3)	Gizonagana	joan	da
	gizon.ABS.ga.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

*Azpi-hizkera eredu*a: Mendebaleko hizkera batzuetan, izen sintagma plurala denean ere, genitiborik gabeko formak lekukotzen dira.

(4)	Gizonakana	joan	da
	gizon.ABS.PL.ga.INE.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean izan dutela aurreikusten da:

Eredu orokorra: Mendebaleko hizkerez bestelako Euskal Herriko hizkera guztietan *-(r)en* genitiboa tartekatzen da izen sintagmaren eta *-ga-* morfema bizidunaren artean (de Rijk 2008: 60).

*Hizkera eredu*a (genitiborik ez izen sintagma bizidun singular eta zehaztugabeetan): Mendebaleko hizkera gehienetan erabiltzen da eredu hau (Bizkaian eta Aramaion), ez ordea, Deba ibarreko hizkeretan (de Rijk 2008: 60).

*Azpi-hizkera eredu*a (genitiborik ez bizidunetako paradigma osoan, ezta pluralean ere): hedadura murriztagoa du eredu honek, mendebaleko euskararen erdialdeko eta sartaldeko hizkera batzuetan (Deba ibarrean eta Txorierriko eremu batzuetan izan ezik, gainerakoetan) lekukotzen da, oro har, soziatiboan *-gaz* singularra eta *-kaz* plurala bereizten dituzten hizkeretan (de Rijk 2008: 60).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan jasotzen dira datu-basean emandako erantzunak, ondoren, erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzeko, eta honela, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatzeko.

*Hizkera eredu*a (genitiborik ez singular eta zehaztugabeetan): Mendebaleko berriemaile gehienek aipatu dituzte genitiborik gabeko postposizioak izen singularretan eta zehaztugabeetan. Honen berri

dugu Aramaion, Arratiako Artean, Lekeitioan, Gernikan, Mungian eta Getxon. Loiuko (Txorierriko) hiztunak ordea, ez du genitiborik gabeko aldaerarik aipatu. Espero zen bezala, Deba ibarreko (Bergara, Elgoibar) berriemaileek ere ez dute genitiborik gabeko aldaerarik aipatu izen sintagma bizidunetako postposizio konplexuen sailean.

Azpi-hizkera eredia (genitiborik ez bizidunetako paradigma osoan): genitiborik gabeko izen berezi pluralen (*gizonakana* gisakoan) berri eman dute aurretik aipatutako mendebaleko hiztun guztiek (Aramaiokoak, Lekeitiokoak, Gernikakoak, Mungiakoak eta Getxokoak), Arratiako hiztunak izan ezik.

Eztabaida teorikoa

Esandakoa laburtuz, euskaraz eremu zabalenean, izen sintagma bizidunen lokatibo bizidunen saila eratzerakoan, *-(r)en* genitiboa tartekatzen da izen sintagmaren eta biziduntasuna adierazten duen *-ga-* morfemaren artean. Mendebaleko hizkera gehienetan (Txorierriko Loiun eta Deba ibarrekoetan izan ezik), izen sintagma mugatu singularrak eta mugagabeak genitiborik gabe erabiltzen dira. Gainera, datu-baseko erantzunetan ikus daitekeen moduan, mugatu singularrak eta mugagabeak genitiborik gabe adierazten dituzten mendebaleko hizkera gehienetan, plurala ere genitiborik gabe adierazten da (Aramaion, Lekeitioan, Gernikan, Mungian zein Getxon) ez ordea, Arratian.

Hau berau gertatu bide zen Ipar Euskal Herri gehienean ere eta izen berezi singularrak eta mugagabeak genitiborik gabe adierazten ziren eta lekukotasun historikoez ere alternantzia hau bermatzen dute:

(5a)	Zertan	ezagutzen	da	Jainkoaganako	karitatea (...)?	(Mater , 1617
	zer.INE	ezagutu.IPFV	(3ABS).izan	Jainko.ABS.gan.INE.GEN	karitate.ABS.DET	
(5b)	Zuregana		gaude	oihuz	(Materra , 1617)	
	zu.GEN.gan.INE.ALL		(1.PL).egon	oihu.INS		

Izen sintagma bizidun singularrak izen bereziak diren kasuetan, genitiborik gabeko bizidunetako postposizioak maiztasun handiagoarekin lekukotzen dira. Izenordainen kasuan, ordea, genitiboa tartekatzea ohikoagoa da, bai izen sintagma singularretan eta baita pluraletan ere (Manterola 2015: 45).

Dena den, ohikoena singularreko izenordainak ere genitiboarekin ematea da egun, eta izen sintagma singular eta mugagabeak ere genitiboarekin adierazi ohi dira.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Manterola, Julen. 2015. *Euskararen morfologia historikorako: artikulua eta erakusleak*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.

iv.2. Partizipiozko erlatiboak: *etorritako*, *etorririko*, *etorririkako*, *etorriniko*, *etorriko* (v *etorri*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Partizipiozko erlatiboak: *etorritako*, *etorririko*, *etorririkako*, *etorriniko*, *etorriko* (v *etorri*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=4&e=69&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aditza, aspektua, erlatibizatzailea, erlatiboak, -KO postposizioa, partitiboa, partizipioa, partizipiozko egiturak, postposizioak

Deskribapena

Euskaraz erlatibozko perpausak adierazteko bi baliabide nagusi bereiz daitezke. Batetik, aditz jokatuaren amaieran kokatzen den *-(e)n* konplementatzailearen bidez sor daitezke erlatibozko perpausak. Bestetik, gisa honetako perpausak partizipiozko erlatiboak erabiliz ere sor daitezke, eta partizipiozko erlatibo hauen artean ez dago orokortzat hartu daitekeen eredu bakar bat.

Hizkera eredu 1: Hizkera batzuetan, partizipiozko erlatiboak egiteko, aditzaren *-n*, *-i*, *-tu* edo \emptyset partizipioari *-tako* (*-ta* partizipio estatiboa eta *-ko* genitiboa) gehitzen zaio.

(1)	Goizean	etorritako	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP.REL/PTCP	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Hizkera eredu 2: Beste hizkera batzuetan, partitibozko *-(r)ik* eta *-ko* atzizkia gehitzen zaizkio aditzaren *-n*, *-i*, *-tu* edo \emptyset partizipioari.

(2)	Goizean	etorririko	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP.PRTV.PTCP	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Azpi-hizkera eredia 2.1: Zenbait hizkeratan, aditzaren *-n*, *-i*, *-tu* edo \emptyset partizipioaren ostean *-rikako* marka ageri da; *-rika* estatibo zaharraren eta *-ko* atzizkiaren baturaz sortzen dena.

(3)	Goizean	etorri rikako	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP.PRTV.PTCP	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Azpi-hizkera eredia 2.2: Beste hizkera batzuetan, *-niko* partizipiozko erlatiboa ageri da: $-n^1$ aditz partizipioa + *-(r)ik* partitiboa + *-ko* morfemaren baturaz sortua.

(4)	Goizean	etorri niko	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP.PRTV.PTCP	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Hizkera eredia 3: Beste zenbait hizkeratan, partizipioari *-ko* soilik eranstea nahikoa da.

(5)	Goizean	etorri ko	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP.REL	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Hizkera eredia 4: Ekialde zabaleko hizkera batzuetan, aldiz, perpaus erlatiboak partizipio soilak erabiliz sortu daitezke.

(6)	Goizean	etorri	gizona	ezagutzen	dut
	goiz.INE	etor.PTCP	gizon.ABS.DET	ezagut.IPFV	edun.1SG.ERG

Oharrak:

1 Ziurrenik, partizipiozko erlatibo hau analogiaz sortu bide zen, *-n* aditz partizipio zaharra partitiboarekin batera (*-nik*) berrinterpretatetik.

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Hizkera eredia 1 (erlatibozko partizipioa *-ta* + *-ko*): partizipiozko erlatiboak era honetara sortzen dira Hego Euskal Herriko hizkera ugarian. Gipuzkoan, Sakanan eta Bizkaiako sortaldean *-tako* da partizipiozko erlatiboa (de Rijk 2008: 493).

Hizkera eredia 2 (*-(r)ik* + *-ko*): eredu honek ez du hedadura zehatz bat, dena den, *-rik* estatibo eredu moderno darabilten hizkeretan lekukotzen da, batez ere, goi- nafarrera hitz egiten den hizkera batzuetan (de Rijk 2008: 492).

Azpi-hizkera eredia 2.1 (*-rika* estatibo zaharra + *-ko*): partizipiozko erlatibo honek bizirik dirau nafar-lapurteraz hitz egiten den eremu ugarian (Lapurdikoko Itsasegian) eta goi-nafarreraz hitz egiten den Ekialdeko hizkeretan (de Rijk 2008: 492).

Azpi-hizkera eredu 2.1 (aditz partizipioa + *-(r)ik* partitiboa + *-ko*): aldaera hau mendebalean lekukotzen da, erdialdeko eta sartaldeko hizkeretan bereziki (Lea-Artibain, Busturialdean eta Txorierrin),

Hizkera eredu 3 (erlatiboa adierazteko partizipioa + *-ko*): partizipiozko erlatibo hau da morfologikoki arruntena. Hori dela eta, Nafarroa Garaiko eremu batzuetan (Baztanen) ez ezik, mendebaleko hegoaldean eta Sartaldean erabiltzen da (Arratian, Txorierrin).

Hizkera eredu 4 (partizipio soila): oro har, Ipar Euskal Herriko hizkera guztietan lekukotzen dira aditz partizipio soilaren gainean eraturiko erlatiboak.

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan, datu-basean emandako erantzunak jaso eta erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, honela, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatzeko.

Hizkera eredu 1: aurreikusi bezala, eredu honen berri eman dute Gipuzkoan (Erreterian, Hernanin eta Itsasondon), gipuzkeraz egiten den Nafarroako hizkeretan (Goizuetan) eta baita Sakanan (Arbizun) eta baita Burundan (Urdiain) ere. Mendebaleko hiztunei dagokienez, eredu honen berri eman dute Deba ibarrean (Elgoibar eta Bergaran) eta Aramaion, baita Sartaldeko hizkera batean (Lekeition), ez ordea, Busturialdean (Gernika). Sartaldeko hizkera batean ere (Mungian), eredu honen berri eman dute.

Hizkera eredu 2: eredu honen berri eman dute goi-nafarreraz egiten den Erroibarren eta baita gipuzkerarekin mugan dagoen Oarsoaldean ere.

Azpi-hizkera eredu 2.1: datu-baseko emaitzek erakusten dutenez, eredu honek ez du hedadura jarraitua. Honen berri eman dute Aezkoa ibarrean eta Lapurdi kostaldean (Ziburun).

Azpi-hizkera eredu 2.2: Mendebaleko ipar-erdialdeko hiztunek darabilte eredu hau (Lekeition, Gernikan eta Mungian).

Hizkera eredu 3: eredu hau ere ez da era jarraituan hedatzen. Aurreikusi bezala, Sartaldeko hizkera batzuetan eredu hau darabilte adierazi dute (Getxon, Loiun, Mungian eta Arratia Artean). Eremu honetaz gain, Araba iparraldean (Aramaion) ere badarabilte eredu hau, ez ordea, mugakide duen Otxandion. Nafarroa Garaiko mugan (Baztanen) ere eman dute honen berri.

Hizkera eredu 4: eredu honen berri eman dute Ipar Euskal Herriko berriemaile guztiek (Urdiñarben, Oragarren eta Ziburun). Ipar Euskal Herritik kanpo, Nafarroa Garaiko mugako hizkeretan (Baztan eta Aezkoan) ere lekukotzen dela adierazi dute berriemaileek.

Eztabaida teorikoa

Laburbilduz, partizipio erlatibozkoak sortzeko lau eredu nagusitan oinarritzen dira euskal hizkera

guztiak. Ipar Euskal Herrian, erlatiboak aditzaren partizipio soilaren gainean sortzea da ohikoena, bestelako morfemarik erabili gabe. Nafarroa Garaiko eta Iparraldeko mugako hizkeretan ere lekukotzen da eredu hau. Gainera, mugako hizkera hauetan eta mendebaleko eremu zabal batean *-ko* soilik erantsiz sortzen da. Beraz, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan eredu bat baino gehiago erabiltzen dela adierazi dute berriemaileek. Gerta liteke eremu berean mugakide diren hizkeretan, aldaera bera ez topatzea (Aramaion eta Otxandion, esate baterako).

Bestetik, partitiboa oinarri duen ereduak eta honen aldaerek erakusten dute hedadura zabalena. Goinariarraz hitz egiten den Oarsoaldean eta Erroibarko gune batzuetan *-riko* erabiltzen da; Lapurdiko Itsasegian eta Aezkoa ibarreko gune batzuetan *-rikako* eta Bizkaia iparraldean *-niko*.

Azkenik, erdialdeko gune zabal batean (Gipuzkoan, Sakanan eta Bizkaia sortaldean) *-tako* da partizipiozko erlatiboa adierazteko erabiltzen den morfema. Beraz, Bizkaiko sortaldeko hizkera batzuetan ere bi eredu lekukotu dira, partitiboaren gainean eratzen dena eta partizipioa + *-ko* ereduak.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

iv.3. Soziatiboa: *-gaz* (v *-kin*)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Soziatiboa: *-gaz* (v *-kin*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=4&e=26&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

instrumentala, postposizioak, soziatiboa (komitatiboa)

Deskribapena

Soziatiboa (*komitatibo* bezala ere ezagutzen dena, cf. Hualde 2003a: 184) posposizio baten bidez adierazten da euskaraz. Soziatiborako posposizioa *-kin* da euskal hizkera gehienetan, eta horietan, genitiboa ageri du aurretik sistematikoki.

(1)	Zurekin	etorri	naiz
	zu.GEN.SOC	etor.PTCP	1SG.ABS.izan

Hala ere, mendebaleko hizkera askotan, beste atzizki bat erabiltzen da sozietiboa adierazteko: *-gaz*, hain zuzen. Posposizio honek badu, gainera, aurrekoarekin desberdintasun bat, hain zuzen, ez dela genitiboaren gainean eraikitzen:

(2)	Zugaz zu.SOC	etorri etor.PTCP	naiz 1SG.ABS.izan
-----	-----------------	---------------------	----------------------

Honekin batera azpimarragarria da *-gaz*-en hedadura dialektala zabalagoa dela singularrerako pluralerako baino. Izan ere, badira hizkerak Bizkaiko sortaldean (Zuazo 2014: 47) non singularrerako *-gaz* erabiltzen bada ere, pluralerako *-kin* erabiltzen den (4). Beste hizkera batzuetan, ordea, singularrerako *-gaz* eta pluralerako haren aldaera fonologikoa den *-kaz* erabiltzen da (3).

(3)	Andreakaz andreak.SOC	etorri etor.PTCP	naiz 1SG.ABS.izan
-----	--------------------------	---------------------	----------------------

(4)	Andreekin andreak.SOC	etorri etor.PTCP	naiz 1SG.ABS.izan
-----	--------------------------	---------------------	----------------------

Banaketa dialektala

Lan dialektologikoetan maiz adierazi izan denez (Zuazo 2008, 2014, 2017), mendebaleko hizkeraren ezaugarri bereizgarria da *-gaz* sozietiboko posposizioa. Zuazok (2017: 39) adierazten duenez, izkriburik zaharrenetan ere aurkitzen da eta Arabako testuek ere lekukotzen dute. *-Gaz/-kaz* ereduaren (3) banaketari dagokionez, pluralerako *-kaz* atzizkia erabiltzea Bizkaiko sartaldeko hizkeren ezaugarria da; hain zuzen, hau izan da Zuazoren (2017) irizpideetako bat Bizkaiko sortalde eta sartaldeko hizkerak bereizteko. Badira tarteko eremuak, ordea. Zuazoren (2017: 78) arabera, “Busturialdeko ekialdean, Zornotzan, Durangalde gehiengan eta Otxandion *-kaz* eta *-kin* lehiatzen dira”. Hala lekukotzen da gure datu-basean ere, Otxandioko hizkerari dagozkion datuetan bederen. Izan ere, komeni da gogoraraztea mendebaleko sartaldeko eta sartaldeko azpi-euskalkien arteko muga Otxandio aldeko hizkerak egiten duela hain zuzen, hizkera honek Otxandio, Ubide, Legutio eta Aramaioko Oleta auzoa barne hartzen dituelarik Zuazoren arabera (2017: 99).

Eremu horretatik ekialdera, aldiz, *-kin* nagusitzen da, bai Durangaldeko ekialdean (Atxondo, Zaldibar, Elorrio aipatzen ditu Zuazok) zein Lea-Artibai eskualde osoan. Ekialderago oraindik, Deba ibarrean, *-kin* erabiltzen da singularrerako zein pluralerako, gure datu-basean ageri denez (Elgoibar eta Bergarako datuetan), baina Zuazok (2017: 78) ohartarazten du Deba ibarraren hegoaldean, Leintz haranean eta Aramaion *-gaz* (eta haren aldera den *-az*) ere entzuten dela. Horixe da datu-base honetan jaso dugun erantzuna hain zuzen, Aramaioko hizkeran (2)ko eredia lekukotuta baitago singularrerako.

Datu-basearen emaitzak

Datu-baserako jasotako datuek argi agertzen dute lan dialektologikoetan deskribatutako banaketa geografikoa. *-Gaz*-en erabilera Bizkaiko hizkeretara mugatzen da, Aramaio ere gehitzen zaielarik. Aldiz, Gipuzkoako mendebaldeko hizkerek *-kin* erabiltzen dute, Bergara eta Elgoibarreko datuek erakusten dutenez. (2) aldaera deitu duguna, beraz, datu-base honetarako erabili ditugun Bizkaiko herri guztietan eta Aramaion jasotzen da eta hauetan besterik ez. Aldiz, (3) aldaeraren eremua, *-kaz* pluraleko formaren erabilera jasotzen duena, murriztagoa da: Bizkaiko mendebalde eta erdialdean lekukotzen da (Artea, Gernika, Getxo, Loiu, Mungia, Otxandio), baina ez ekialdean (Lekeitio, Mallabia) ezta Aramaion ere, eta ezta, jakina, Gipuzkoako mendebaldeko hizkeretan ere (Bergara, Elgoibar). Bizkaiko ekialdean eta Aramaion, (4)ko datuetan ikusi daitekeenez, *-kin* da erabiltzen den aldaera pluralerako (ikus berriro Lekeitio, Mallabia, Aramaio). Kasu berezia da Otxandiokoa, han bietarik jaso baita, bai (3) zein (4)ko ereduak. Txandaketa hau hizkera hau bi azpi-euskalkiren tartekoa izatearen ondorio da, "Banaketa dialektala" atalean azaldu den bezala.

Eztabaida teorikoa

EGLUren arabera (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 287-288), sozietiboaren forma *-(r)ekin* da mugagabea, *-arekin* mugatu singularrean eta *-ekin* mugatu pluralean. Sozietiboa euskaraz kidesuna adierazteko erabiltzen da gehienbat, baina baita ere modu, kausa edo instrumentaltasuna adierazteko, batzuetan instrumentaleko posposizioaren (*-z*) ordez. Honekin batera, denborazko zentzuan ere erabili daiteke. Gramatika honetan azaltzen da bizkaieraz *-(r)ekin* markarekin batera *-gaz* eta pluralerako *-kaz* erabiltzen direla (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 289-290). Posposizio honen formak mugagaberako *-gaz*, mugatu singularrerako *-gaz* eta pluralerako *-ekaz* direla azaltzen da, eta beraz, esplizituki adierazten ez den arren, agerian gelditzen da forma hauek ez direla genitiboaren gainean eraikiak, *-kin* posposizioz osatuak ez bezala.

Hualde eta Ortiz de Urbina gramatikan, Hualdek (2003a: 184) adierazten du sozietibo edo komitatiboa genitiboan oinarritzen dela, nahiz eta genitiboaren atzizkiak duen azken sudurkaria (*-ren*) ageri ez duen sozietiboarekin (*-kin*) elkartzerakoan. Gramatika honetan adierazten denez, bizkaierako aldaera *-gaz* da eta hau absolutiboaren gainean eraikitzen da. Mendebaldean gainera, komitatiboa erabiltzen da instrumentalaren zenbait erabileratarako.

Aipamenak

Burgete, Xabier and Iñaki Gaminde. 1991. *Otxandioko euskaraz*. Loroño, Bilbo.

Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]

Hualde, José Ignacio. 2003a. «Case and number inflection of noun phrases». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171-187.

Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektok*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

iv.4. Soziatiboa: *-kilan* (v *-kin*)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Soziatiboa: *-kilan* (v *-kin*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.es/biv/?o=chapters&id=4&e=27&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

genitiboa, postposizioak, soziatiboa (komitatiboa)

Deskribapena

Aurreko kapituluan (43) azaldu denez, euskaraz soziatiboa (komitatibo ere deitu dena) adierazteko, posposizio bat erabiltzen da. Euskara batuan eta hizkera gehienetan lekukotzen den atzizkia *-kin* da. Posposizio honen aurrean genitiboa azaldu behar da beti:

(1)	Zurekin	etorri	naiz
	zu.GEN.SOC	etor.PTCP	1SG.ABS.izan

Dena dela, zenbait hizkeratan *-kin* posposizioaz gainera, *-kilan* atzizkia ere erabiltzen da. Kasu honetan, *-kin* soziatiboa osatzen duten *-ki* eta *-n* osagaien artean, adlatiboarekin antza duen *-la-* morfema bat tartekatzen dela ageri da. Kasu honetan, *-gaz* aldaerarekin ez bezala, *-kilan* posposizioak genitiboaren gainean eraikia behar du, *-kin* morfemak bezala.

(2)	Airatu	da	bertze	batekilan
	aira.PTCP	3SG.ABS.izan	bertze	bat.SOC

Banaketa dialektala

Zuazok (2014: 136, 258) adierazten duenez, *-kilan* atzizkiaren eremua ipar-ekialdeari dagokio. Bere deskribapenaren arabera, Ipar Euskal Herri ia osoan erabiltzen da aldaera hau, Lapurdiko mendebaldean izan ezik (Uztaritzeko eskualdean ezartzen du muga). Hegoaldean, aldiz, ez da aldaera hau ezagutzen, eta 43. kapituluan azaldu bezala, *-gaz* atzizkiarekin batera ageri zaigu hego-mendebaleko hizkera batzuetan.

Bestalde, badirudi *-kilan* aldaera *-kin* aldaerarekin batera ageri dela aldaera hau erabiltzen den euskalkietan, hau da, *-kilan* formak ez duela *-kin* gutziz ordezkatzen. Alternantzia honen arrazoiak

"Eztabaida teorikoa" atalean aztertu ditugu, eta eman dezake esanahiaren ñabardura bat adierazten duela, edo adieraziko zuela noizbait. Gaur egun, ordea, ematen du ñabardura hau lausotu egin dela. Adibidez, alternantzia honen berri ematen du Zuazok (2014: 136) bi formen arteko esanahi desberdintasunik azaleratu gabe, eta berdin egiten du Epeldek (2004a) Larresoro, Ezpeleta, Zuraide eta Itsasuko euskaraz ari dela. Honekin batera, Epeldek (2004a) adierazten du, hizkera hauetan bi formak erabiltzen diren arren, *-kilan* gutxiago erabiltzen dela.

Datu-basearen emaitzak

Gure datu-basean ageri diren datuek lan dialektologikoetan deskribatu den banaketa azaltzen dute. Nafar-lapurteraz eta zuberotarrez lekukotzen da atzizki hau, Oragarre eta Urdiñarbeko datuetan. Nafar-lapurterari dagokionez, datuek erakusten dute sortaldeko aldaera dela *-kilan* forma ageri duena, Lapurdiko hizkerek ez baitute aldagai hau lekukotu, izan ere, *-kin* baino ez da lekukotu Ziburun eta Larresoron. Azken datu hau ez dator guttiz bat Epelderen (2004a) deskribapenarekin, baina egileak berak adierazten duenez (2004: 284) *-kilan* aldaera gutxiago erabiltzen da, eta, hortaz, hau izan daiteke arrazoia ezaugarri honetan ezezko erantzuna jasotzeko gure datu-basean.

Eztabaida teorikoa

EGLU Ien arabera (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 287-288), sozietiboaren forma *-(r)ekin* da mugagabea, *-arekin* mugatu singularrean eta *-ekin* mugatu pluralean. Sozietiboa euskaraz kidetasuna adierazteko erabiltzen da gehienbat, baina baita ere, modu, kausa edo instrumentaltasuna adierazteko, batzuetan instrumentaleko posposizioaren (*-z*) ordez. Honekin batera, denborazko zentzuan ere erabili daiteke. Euskaltzaindiak (1985 [1991]: 290) Pierre Lafitteren gramatika (1979 [1944]) aipatzen du *-ekila* atzizkia *-ekinen* baliokide hutsa ez litzatekeela adierazteko. Izan ere, Lafitteren (1979 [1944]: 60) arabera, *-kilan -kinetik* bereitzen da *-kilanek* berarekin dakarrelako "norbaitekin elkartzeko mugimendua" (jatorrizkoan, «un mouvement pour se joindre à quelqu'un») adiera. Aldiz, *kin*-ek "elkartzet burutua" (jatorrizkoan, «l'union réalisée») adierazten du. Hala ere, Lafittek berak azpimarratzen du euskaldun asko ez direla bereizketa honen jakitun. Hain zuzen, Epeldek (2004a), Larresoroko aldaera aztertzerakoan, ez du ikusten inongo desberdintasunik *-kin* eta *-kilan*en arteko erabileran.

Hualde eta Ortiz de Urbinaren gramatikan, Hualdek (2003a: 184) adierazten du sozietibo edo komitatiboa genitiboan oinarritzen dela, nahiz eta genitiboaren atzizkiak duen azken sudurkaria (*-ren*) ageri ez duen sozietiboarekin elkartzerakoan (*-ki*). Gramatika honetan adierazten denez, ekialdeko hizkerek (Erronkariara barne hartuta) *-ki* eta *-kila* aldaerak dituzte.

Aipamenak

Epelde, Irantzu. 2004a. «Lapurdiko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz» *FLV*, 36, 96. 271-304.

- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Hualde, José Ignacio. 2003a. «Case and number inflection of noun phrases». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171-187.
- Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

iv.5. Soziatibo/instrumental alternantzia: *-kin*, *-kilan* (v -z)

Egilea: Cecilia Fernández

Nola aipatu: Fernández, Cecilia. (2022). Soziatibo/instrumental alternantzia: *-kin*, *-kilan* (v -z). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=4&e=28&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

instrumentala, postposizio alternantzia, postposizioak, soziatiboa (komitatiboa)

Deskribapena

Oro har, *instrumentaltasuna* (tresna-erabilera) adierazteko, euskal gramatikan instrumental bezala ezagutzen den postposizioa (-z) erabiltzen da.

(1)	Aizkoraz	moztu	du	enborra
	aizkora.INS	moztu. PTCP	3SG.ABS .edun.3SG. ERG	enborra. ABS

Nolanahi ere, zenbait hizkeratan, -z instrumentalaren ordez, *-kin* soziatiboa erabiltzen da instrumentala adierazteko.

(2)	Aizkorarekin	moztu	du	enborra
	aizkora.GEN. SOC	moztu. PTCP	3SG.ABS .edun.3SG. ERG	enborra. ABS

Horrekin batera, beste zenbait hizkuntzatan *-kilan* erabiltzen dute testuinguru honetan.

(3)	Aizkorarekilan	moztu	du	enborra
	aizkora.GEN.SOC	moztu. PTCP	3SG.ABS .edun.3SG. ERG	enborra. ABS

Aurreko kapituluan (44) esan dugun bezala, Lafittek (1944 [1979]) *-kilan* atzizkiarentzat ñabardura semantikoak aurkitu zituen arren, ez dirudite esanguratsuak kasu honetarako.

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean jasotako datuek emaitza harrigarria ematen dute: datu-base honetan jaso diren hizkera guztiek onartzen dute instrumentaltasuna sozietiboaren bidez adieraztea. Kontuan hartzekoa da datua jasotzeko erabilitako esaldia prototipikoki instrumentala dela: aizkora mozteko erabilitako instrumentua da, ez soilik bitartekoa. Pentsatzekoa da bestelako testuinguruetan sozietiboa beharbada ez litzatekeela onartuko hizkera guztietan.

Eztabaida teorikoa

EGLU I gramatikan (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 290-294) instrumentalari dagokion atalaren sarreran bertan adierazten da hizkera batzuetan (“toki askotan”) posposizio hau oso gutxi erabiltzen dela. Hala ere, alfabetatze prozesua joera hau iraultzen ari dela ere ohartarazten da. Bertan esaten da baita ere bizkaieraz bestelako interferentzia bat gertatzen dela. Izan ere sozietiborako posposizioa (*-agaz*) eta sozietiborakoa (*-az*) nahastu egin daitezke, eta horrek ere instrumentalaren (itxurazko) erabilera ugaritu dezakeela.

Hualdek (2003a: 184) azaltzen duenez, “instrumental” izena jaso duen posposizioak gehienetan tresna edo bitartekoa adierazten du: *giltzaz ireki dugu atea, trenetz etorri gara*, baina baita ere materia(la): *zilarrez*, edo gaia: *morfologiaz*. Hala ere, beste hainbat erabileratan ere aurkitzen dugu, hala nola, denbora adierazteko: *goizez*, edo hizkuntza: *euskaraz*. Hala ere, azken kasuotan, sintagmaren barne-egitura konplexuagoa bada, inesiboa aurkitzen dugu instrumentalaren ordeztu: *gaur goizean, hizkuntza honetan*. EGLU I-ek “diferentzia” ere aipatzen du; *eztarriaz beherago*, hau da, konparazioaren estandarra markatzeko erabil daitekeela. Gramatika honetan adierazten da Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat eremutan komitatiboa (alegia, sozietiboa) erabiltzen dela instrumentalaren esanahi “zentraletan”, hau da, tresna edo bitartekoa adierazteko: *giltzarekin ireki, eskuekin egin*, nahiz eta instrumentalaren erabilera “bazterrekoa” mantendu egin den hizketa hauetan ere, testuinguru murriz batzuetan.

De Rijkek (2008: 737-778) kapitulu oso bat eskaintzen dio instrumentalaren erabilerari. Bere ustez, oinarriko esanahia “bitartekoa” da baina baita “kausa” ere; hala ere, bere ustez, beste posposizioak egokiak ez direnean ere erabiltzen da. Bere deskribapenean, instrumentala ez da izaten aukera bakarra; bere ustez, Hegoaldeko hizkera askotan (ez du zehazten zeintzuk) instrumentala arkaiko bilakatu da eta beste posposizio batzuekin ordezkatu ohi da. Hegoaldean, sozietiboa guztiz nagusi bilakatu da

instrumentalaren aurrean, eta bere ustez, instrumentala, erabiltzen denean, adberbioak eratzeko eratorpen atzizki gisa erabili ohi da. Iparraldeko hizkeretan, ordea, instrumentala ohikoagoa da. Hala ere, sintagma konplexuagoen kasuan, bitartekaritza sozietiboaren bidez adierazten da. Hala ere, idatzizko erregistroan, Hegoaldean askotan sozietiboa erabili ohi da, De Rijken (2008: 738) ustez, erromantzearekiko paralelismoa (*con/avec X*) ekiditeko.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.

Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]

Hualde, José Ignacio. 2003a. «Case and number inflection of noun phrases». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171-187.

iv.6. Onuraduna: *-tzako, -dako, -tako* (v *-tzat*)

Egilea: Irati Huarte

Nola aipatu: Huarte, Irati. (2022). Onuraduna: *-tzako, -dako, -tako* (v *-tzat*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=4&e=29&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

-KO postposizioa, onuraduna, postposizioak

Deskribapena

Euskaraz, onuraduna adierazteko *-tzat* postposizioa erabiltzen da bizidunekin. Onuraduna markatzerakoan, aitzinetik-(*r*)*eng*enitibo marka agertu behar da (Euskaltzaindia 1985: 297; De Rijk 2008: 113)-(*r*)*entzat* forma sortuz. Gainera, bertze edozein postposizioarekin gertatzen den bezala, erlaziozko-*ko* postposizioa (Hualde 2003b: 204) ere ager daiteke IS-ren aitzinean, izenlagunaren modifikatzaile gisa:

(1a)	Liburu	hau	zuretzat	da
	liburu	hau.ABS	zu.GEN.DEST	(3ABS).izan
(1b)	Zuretzako	liburua	ederra	da

zu.GEN.DEST.REL liburua.ABS ederra (3ABS).izan

Hizkera batzuetan, ordea, *-tzaton*uraduna erlaziozko *-kopostposizio*arekin batera ager daiteke IS-rik gabeko testuinguruetan ere. Hizkera hauetako batzuek, gainera, onuraduna markatzeko *-takoedo -dako* formak erabiltzen dituzte (Hualde 2003a: 183):

(2)	Liburu	hau	zure tzako/tako/dako	da
	liburu	hau.ABS	zu.GEN.DEST.REL	3SG.ABS.izan

Banaketa dialektala

Onuradunaren *-tzako/dako/tako* aldaera hauek Euskal Herri osoan aurkitzen ahal ditugu (Zuazo 2014). Hasteko, nafar-lapurteraren ezaugarria da, hain zuzen, Lapurdiko mendebalean eman ohi da, Ahetze, Senpere eta Ainhoa inguruan (Zuazo 2014: 133). Baina, horrek ez du erran nahi hizkera horietan *-entzaterabili* ezin daitekeenik, bi aldaerak, *-entzateta-entakoleihakideak* baitira (Epelde 2004b: 284; Zuazo 2014: 138) batez ere euskara batua zabaldu zenetik (Zuazo 2013: 111). Lapurdiz gain, *-endako* Zuberoan ere lekukotzen da Hualdek (2003a: 183) biltzen duen bezala:

(3) Ogia gūnin gūk kabalentako
'Ogia genuen guk animalientzat'

Nafarroan ere bi aldaerak lehia daude, Bortzirietan, Araitz-Betelun, Larraunen, Basaburuan eta Imotzen adibidez (Apalauza 2008: 83; Zuazo 2014: 274), baita Sakanan ere (Zuazo 2010: 80). Ibarra Murillok (2019: 230) nafarreraz hitz egiten du eta berak ere *-endakoidazten* du:

(4) [...] 25 ezaugarri bateratzaile ez eksklusiboen sorta
nafarrerarendako hauek dira

Horrez gain, mendebaleko hiztunek ere bi formen arteko lehia dute, erraterako, Deba ibarrean eta Durangaldean (Zuazo 2014: 273). Honakoa biltzen dute Agirrebeñak, Sarasuak eta Zenarruzabeitiak (2005: 136-137) Eibarren, izan ere, *-endakoda* bertako aldaera nagusia:

(5) Ona zala, batetik, Eibarko herrixandako

Azkenik, erdialdeko euskalkian ere topatzen ahal da, Goierri aldean batez ere, Legazpin, Zerainen, Seguran eta Zegaman (Zuazo 2014: 273-274). Beasainen, adibidez, *-tzakoda* nagusi nahiz *-tzat* ere erraten den (Agirrebeña eta bertze 2007: 37):

(6) Sukaldea eta hoi zan festatan, urten behin, inbitatuk
getorkiuneako, gonbiatuk, hobeto esanda, ba, haiantzako

Datu-basearen emaitzak

Ekialdeko hizkerekin hasiz, Zuazorekin (2014) eta Hualderekin (2003a) bat eginez, Iparraldeko hizkerekin *-ko* darabilte onuraduna egiteko, Larresoron (Lapurdi) eta Urdiñarben (Zuberoa), erraterako. Hala ere, nabarmentzekoa da Ziburuko inkestatuak *-tzathobesten* duela nafar-lapurteraz hitz egiten duen arren.

Euskal Herriko Hegoaldearekin jarraituz, Nafarroan *-tzako/dako/tako* erabiltzen da, adibidez, Baztan eta Erroibar aldean. Erdialdeko bertze hiztunek ere fenomeno hau darabilte, Irunen, Errenterian eta Gipuzkoa erdialdeko bertze herri batzuetan.

Bukatzeko, mendebaleko inkestatu guztiek *-tzako/dako/takonahiago* dute *-tzat* morfemaren ordez: Aramaion (Araba), Bizkaiko kostaldean (Getxo, Lekeitio) eta hegoalderago dauden Gernika edo Otxandio bezalako herrietan. Ondorioz, goitiago aipatu dugun bezala, Euskal Herriko hainbat hizkeratan lekukotzen da onuraduna egiteko forma hau.

Aipamenak

- Apalauza, Amaia. 2008. «Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu». *FLV* 107. 63-104.
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Epelde, Irantzu. 2004b. *Larresoroko azterketa. Dialektologia azterketa*. Ph.D. Diss., UPV/EHU.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Hualde, José Ignacio. 2003a. «Case and number inflection of noun phrases». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 171-187.
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Ibarra Murillo, Orreaga. 2019. Muga eta trantsizioa Nafarroako euskal hizkeretan. *RLLCGV XXIV*: 227-251.
- Sarasua, Asier, Aintzane Agirrebeña and Leire Zenarruzabeitia. 2005. *Eibarko euskara. Gure hizketaren doinu eta berbak*. Eibar: Eibarko Udala.
- Zuazo, Koldo. 2010. *Sakanako euskara. Burundako hizkera*. Iruña: Nafarroako Gobernua; Bilbo: Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

